

Kerity: Luzapenak

Bi gai ezberdin

--> Ipuinak

--> Liburutegia



Ipuin ezberdinak ezagutzeko parada

- **Ipuin klasikoak**
- **Euskal-Herriko ipuinak**
- **Bretainierazko ipuinak**

Euskaratuak diren ipuin klasikoen bibliografia

Kontaidazu ipuin bat / Grimm, Jacob (1999)

Kontaidazu ipuin bat / Grimm, Jacob, Egilea; Grimm, Wilhelm, Egilea; Cardenoso, Concha, Egokitzailea; Murua, Mitxel, Itzultzailea; Tobella, Montse, Irudigilea. - Donostia : Tarttalo, 1999. - 93 or.: kol. ir.; 28 cm. - (Kontaidazu) .

Edukia : Eburne zuri eta zazpi ipotxak

Bremengo musikariak

Hansel eta Gretel

Rapunzel

Jostun ausarta

Lorezuri eta Loregorri

Arrantzalearen emaztea



Perrault : Ipuinak / Mazali, Gustavo (2009)

Perrault : Ipuinak / Mazali, Gustavo, Egilea; Bernatene, Poly, Irudigilea; Aztiri itzultpen zerbitzua, Itzultzailea. - Donostia : Tarttalo, 2009. - 84 or.: kol. ir.; 30 cm.

Edukia : Katu botaduna

Loti ederra

Erpurutxo

Mari Errauskin

Txanogorritxo



Bretainiako ipuinak

Bretainian, ipuin eta leienda berezi anitz badira.

Bretainieraz argitaratuak:


Mojennoù Breizh

Jérôme Palud, Marianne Larvol

Teñzorioù aour ha perlez zo bet dispaket en heol gant ar C'hwilostenn gozh ! Ha roet e vo e lod da viliner Rozambaou. Penaos e raio paotred kalonek Brasparzh d'en em zizober diouzh an aerouant skrijus a zo o spontañ ar vro a-bezh ? Ha gouest e vo an Diaoul da sevel ur pont en un nozvezh war an Aber-Ac'h ?... Eizh mojenn a Vreizh-Izel, tudennoù spontus pe marvailhus enno, a vo kavet da lenn el levr-mañ.

(Bretainiako kondairak

Deabruak, dragoiak, ikuztegiak, iratxoak eta sirenak Bretainiako zortzi kondaira hauetan, Ankou-a ahaztu gabe.)



Bretaniako ipuinak: [Dokumentu osoa](#)

Euskal ipuin klasiko batzuk

▼ Altzaiko herensugea / Etxebarne, Juje

Altzaiko herensugea [testu inprimatua] / Etxebarne, Juje, Egilea;
Casenave-Harigile, Junes (1924-...), Egilea; Alberdi, Koxe, Irudigilea;
Casenave-Harigile, Junes (1924-...), Hitzaurregilea, etab.. - Maule : Sü
Azia ; Mendikota : Uhaitza, [s.d.]. - 36 or.: kol. ir.; 21 x 23 cm.

Indexazio hamartarra : 291.13 (Mitologia)

Generoa : Ipuin klasikoa

Publikoa : 4 urtetik aurrera



▼ Basajaun eta Martin / Arrieta, Yolanda (1963-....) (2012)

Basajaun eta Martin [testu inprimatua] / Arrieta, Yolanda (1963-....),
Egilea; Caballero, Maite, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2012. - 31 or.:
kol. ir.; 22 cm. - (Marraz(i)oak) .

Laburpena : Basajaunek etxe berezi bat egin nahi du muino gainean
baserritarrak biltzeko. Martinek, zelaian. Nola konponduko dira ?
Ataungo kondaira ezagun bat eguneratu dute egileek album ilustratu
honetan.

Generoa : Ipuin klasikoa

Publikoa : 2 urtetik aurrera



Liburutegia/ mediateka

Eskolako liburutegia, Herriko mediateka, IKASeko mediateka

Ibilera:

- Liburuak nola atzematen dira apaletan?
- Nola bilduak dira liburuak?
- Bilaketa webgunean
- Zer hartzen ahal da? Zenbat? Noiz arte?
- Mailegua nola ibiltzen da? Bazkidetza

Arauak:

- Isiltasuna
- Hartzen den liburua zaindu behar da
- Hartzen den liburua itzuli behar da epea errespetatuz



Arauak



Arauak



Abadiaren jauregia eta bere liburutegia, Hendaian:
Kerity filmean bezala, liburutegia kostaldean kokatua da eta aurkitzen diren liburuak zaharrak dira.



Antton Abadia


Dublin, 1810 - Paris, 1897

Antton Abadia Urrustoi, geografoa, astronomoa eta **euskal kulturaren eragilea** izan zen.

Jakintsu eta esploratzailearen bizimodu higitua izan zuen. Frantziako Zientzia Akademiaren esanetara, egonaldi luzeak egin zituen **Brasilen, Egipton eta, batez ere Etiopian**. Egipton ibili zen ere. Bidaiotatik jakintza zabala jaso zuen hizkuntzez, etnologiaz edo geografiaz, eta **eskuizkribu nahiz objektu bilduma handia** ekarri zuen.

Euskal Herriaren maitale sutsua izan zen, eta **euskal hizkuntza, kultura eta izatea babesteko lan handia egin zuen**: Agosti Xahorekin batera euskal gramatika bat atera zuen. Beste lan asko ere argitaratu zituen euskararen gainean.

Etiopiatik itzuli zenean, 1864an, 350 hektareako lur saila erosi zuen Hendaia eta Donibane Lohizune bitartean, **Abadia** izendatu zuena. Bertan bizi izateko **Abadia jauregia** eraikiarazi zuen. Politikan ere sartu zen, Hendaiaiko alkate izan baitzen 1871-1875 bitartean.





11 000 liburu daude liburutegian: eleberriak, olerkiak eta batez ere **euskal kulturari** buruzko **960 liburu**.

Antton Abadiak bere fama eta dirua euskal kulturari eskaini zien.

Argitalpenak:

- Zuberoatikaco gutun bat, 1864
- Études grammaticales sur la langue euskarienne, 1836
- Le Dictionnaire de Chaho, 1854
- Lettres sur l'orthographe basque, 1854
- Travaux récents sur la langue basque, 1859
- Sur la carte de la langue basque, 1868
- Le basque et le berbère, 1873
- Lettre sur la préservation de la langue basque, 1895

Denetan agertzen dira hizkuntza ezberdinetako esaldiak, batez ere **euskaraz**, irlandaraz, arabieraz, latinez ingelesez edo alemanez.

Euskaraz irakurtzen ahal diren esaldiak hauek dira:

- *Bizi bedi euskara*
- *Erhobat afki da harricantoin baten puzura egofteco, bana sei fuhur behar dira haren hantik itoiteco*
- *Sapar edoceinec du bere izala*



Liburutegiaren bisita birtuala egiten ahal da jauregiko webgunean:

https://www.chateau-abbadia.fr/sites/chateau-abbadia.fr/themes/abbadia/360/visite_virtuelle.html




Sorkuntza lana

- *Gaua iristen da. Abadiako jauregia hesten da. Bisitariak etxera joaten dira. Liburutegian, liburuetako pertsonaia ttipiak ateratzen dira. Zer egiten dute? Asmatu, idatzi eta irudikatu.*
- *Gaua iristen da. Abadiako jauregia hesten da. Bisitariak etxera joaten dira. Liburutegian, ipuinetako laminak ateratzen dira. Zer egiten dute? Asmatu, idatzi eta irudikatu.*
- *Gaua iristen da. Abadiako jauregia hesten da. Bisitariak etxera joaten dira. Liburutegian, liburuetako euskal idazleak ateratzen dira. Zer egiten dute? Asmatu, idatzi eta irudikatu.*
- *Gaua iristen da. Abadiako jauregia hesten da. Bisitariak etxera joaten dira. Jauregiko harrizko animaliak iratzartzen dira. Zer egiten dute? Asmatu, idatzi eta irudikatu.*



Laguntzak:

- pertsonaiek besta bat antolatzen dute (kantak, dantzak, bertsuak)
- bertso txapelketa bat antolatzen dute
- zientzia esperimentuak egiten dituzte
- pertsonaiek gramatika klase bat antolatzen dute (gau eskola moduan)
- ...



Beste liburutegi batzuk

Dublineko liburutegia Trinity college. Irlanderaz, *Colaíste na Tríonóide*.
Antton Abadia Dublinen sortu zen.




Gaur egungo **mediatekak**: liburuak + bideoak + audioak + internet



Stuttgart, Alemania



Bilbo, Bizkaia



Mexiko hiria, Mexiko herrialdea



Tianjin, Txina